

## San Martzialgo bataila

Deia, 1983-08-23.

Geure herri triste honetan militarrek jotzen dituzten orduak dira gogoangarrienak, zoritxarrez.

Hil kanpaiak baitira denak.

Gaurko giroak eta egutegiak gogorazi dit nire haurtzaroako efemeride larri hura: San Martzialgo bataila. mendi honek ikusi zuen lehen ere gerrik, baina azkenengoaz ari garenez: handik ona ez ote du inork ezer ikasi?

Solchaga koronelak, Aiakohaitzak-Erlaitz-Pagogainako linea hartzeko agindu dio Beorlegiri: *Abuztuak 10-11 (1936)*; hor dituzte itsasotik laguntzaileak: "Cervera" eta "Canarias" kruzeroak, "España" akorazadoa eta "Velasco" destruktorea, Donostia aurrean; *XIIIan*, "Cervera"k Urgull mendia bonbardeatzen duen bitartean, bost hegazkin italiar ari dira hiria beraren gainean bonbak botatzen, eta ez da erantzun biderik: Urgullen ditugun bateriak gerruntzienak baino tiro motzagoa dute, geuk geure zeruko pakea defendatzeko behar denik ez dugu.

Eta erraz botatzen dute *ultimatuma*: errendatzeko; Donostiak, berriz, ezinbestean: errebelatuak bonbaz hiltzen duten bakoitzagaitik bost preso fusilatuko dituztela.

Hau izan zen Donostiaren defentsarako izan genuen harma bakarra.

Bien bitartean, Irungo borroka aurrera doa: Solchagak lortzen du gizon eta harmen poderioz Erlaitz; ez da nahikoa, hor dijoazkio indar berriak; gizonak (lejionarioak eta mairuak), tankeak, artilleria berria; Francoren agindua hartu du Molak: bukatzeko euskaldunekin, eskuak libre nahi dituela *Madrilen sartzeko*. Baina ezin dute oraindik frontierako pasadizoa moztu, honetarako Irun hartu behar dute, eta irungo giltza: San Martzial. Hilak 26 eta oraindik horretan ari dira: galera handiak eta lorpen gutxi; urrengo egunean, 27, eraso eta lorpen berdinak; hirugarren egunean, *28an* geldi dago dena, baina gauerdian asten da infernua; arratsalderako lejionarioen ahaleginak, batzu baionetaz, ez dute hila franko besterik lortu, Mola haserratzen da, eta hiru eguneko isilunea. *Irailak 1*, gizon eta kanoi berriz, *Caproni* hegazkinez, dator orain eraso, lehen aldiz bonbardeatzen da lur-itsaso-airez batera: goizean eraso bat, arratsaldean bestea (Mola eta Franco zain-zain) eta hala ere alferrik; Garcia Valiño bera zauritzen dute. *Irailaren 2an*, arratsaldeko 3ak aldera, lortzen dute, azkenean, gailurra.

Gipuzkoaren galera hemendik abiatzen da.

Hala ere, Bilbo hartzeko, urtebete, eta Madrilen sartzeko hiru urte, beharko ditu Francok.

Mola, bidean erori da, edo bota dute.